

2025 DEIALDIA FECYT-FCC Deialdia EPEA: 2025/07/01etik 2025/09/23 13:00etan

Deialdiaren helburua:

kultura zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntza sustatzeko jarduerak egiteko diru-laguntzen deialdia.

Proiektuen iraupena:

Dirulaguntza jasoko duen jarduera eramango da aurrera kategoria bakoitzerako ezarritako epearen barruan, hau da, 2026ko uztailaren 1etik 2028ko ekainaren 30era bitartean, eta 2025an zehar ekingo zaio jarduerari.

Proiektuen kategoriak:

Jarduera horiek hurrengo kategoria batean sartuta egon behar dute:

- a. Zientzia eta teknologiaren gizarte komunikazioari buruzko proiektuak
 - a.1. 12 hilabete arteko iraupena duten proiektuak
 - a.1.1. Errepikatzen diren proiektuak
 - a.1.2. Proiektu berriak
 - a.2. 12-24 hilabeteko iraupena duten proiektuak
- b. UCC+I atalen jardueren urteko programa
- c. Zientzia azokak
- d. Proiektu bereziak (derrigorrez koordinatuak):
 1. Herriarren zientzia
 2. Arteak, zientzia, teknologia eta gizarteak
 3. Ikerkuntza eta zientifikoaren komunitatean praktika

Finantziak:

Deialdi honen baitan emandako diru-laguntzen bidez finantzatu ahal izango da, gehienera, aurkeztutako proiektuaren **aurrekontu osoaren % 70**. Eskaera bakoitzak, gehien dela, 100.000 euro jaso ahal izango ditu.

Aurrekontua:

Diru-laguntza izan dezaketen kontzeptuak (deialdiaren oinarriaren 7. Artikulua):

- Proiektuan jardungo duten langileen kontratazioa
- bidaia gastua eta dietak
- Material suntsikorra eta hornigaiak
- Aholkularitza gastuak, hezkuntza jarduerak prestatzeko gastuak, proiektuaren ebaluazioa, zabalkunde eta argitalpen gastuak
- Aretoen alokairua, konferentzien antolaketa, jarduerak

Zeharkako kostuak ezin dira finantziatu.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

Eskaera bakoitzeko arduradun bakarra egon daiteke.

Lantaldeko kide izango dira proiektua gauzatzearekin zuzenean lotutako zereginak egiten dituzten pertsonak, fase guztietan esku hartuta. Ez dira lantaldean sartzen jarduera bat egiten unean-unean esku hartzen duten hornitzaileak edo kanpoko laguntzaileak.

Proiektu-arduradun batek proposamen bat baino gehiago gidatu dezake. Kasu horretan, dedikazioa partziala izango da proposamen bakoitzean.

Pertsona batek proposamen bat baino gehiagoko lantaldean parte har dezake. Kasu horretan, dedikazioa partziala izango da proposamen bakoitzean.



Eskaerak aurkezteko era eta epea:

Eskaera bide elektronikotik aurkeztuko da, plataforma honen bidez:

<https://www.convocatoria.fecyt.es/Publico/index.aspx>

<https://www.convocatoria.fecyt.es/Publico/Bases/Bases.aspx>

eta <https://www.convocatoria.fecyt.es/Publico/Logotipos/Logotipos.aspx> webguneetan deialdi honi buruzko dokumentazioa kontsulta dezakezu: deialdiaren testua, eskabideak aurkezteko gida, ohiko galderak, eskabide-formularioen adibideak eta memoriak.

UPV/EHUko eskaerak aurkezteko prozedura:

Bakarkako proposamenek 2025eko irailaren 16a baino lehen eta proposamen koordinatuek erakunde koordinatzailea UPV/EHU bada, **2025eko irailaren 9a baino lehen** hurrengo dokumentazioa:

- Proiektuaren memoria
- Aurrekontua
- Parte hartzen duen ikerketa-taldea. UPV/EHUtik kanpoko langileek parte hartzen badute, jatorrizko erakundearen baimena bidali beharko da.
- Fecyt FCCk estaltzen ez duen aurrekontua finantzatzeko konpromisoa

GARRANTZITSUA: sistema elektronikoaren bidez eskaera-formularioa eta memoria teknika bete ondoren, ekintzaren arduradunak behin betiko eskaera egin beharko du, izena emateko ezarritako epearen barruan. Ekintzaren arduradunak eskaera behin betiko aurkeztu ondoren, erakunde eskatzailearen legeko ordezkariak dokumentuen sinadura elektronikoa egin beharko du.

Formularioaren eta gainerako dokumentazioaren sinadura elektronikoa eskabideak aurkezteko aldi osoan egin ahal izango da, eta erakunde eskatzailearen **legeko ordezkariak epe hori amaitu baino lehen elektronikoki sinatu baditu bakarrik joko dira eskabideak behar bezala aurkeztutzat**.

Eskabideak aurkezteko epea ixtean legeko ordezkariak elektronikoki sinatu ez duen eskaera oro ez aurkeztutzat joko da.

UPV/EHUn harremanetarako kontaktua:

Posta elektronikoa: convocatoriasestatales.dgi@ehu.es

FECYTen harremanetarako kontakuta:

Telefonoa: 00 34 91 425 09 09

Helbide elektronikoa: convocatoria@fecyt.es

Deialdiaren inguruko informazio orokorra eta kudeaketa:

<https://convocatoria.fecyt.es/>